


Hodi enpresak batze bidean

Irailaren 26an egingo den Tubos Reunidos TR enpresako Ezohiko Batzar Nagusian, Condesa enpresarekin fusionatzeko prozesua hasiko da. Hodien euskal sektorearen kontzentrazioaren hasiera izan daiteke, epe ertainera, hirugarren enpresak, Tubacex arabarrak, bat egiten duenean.

DANIEL UDALAITZ



TR eta Condesa fusionatzeko prozesua hasita, hodian euskal sektorea elkartzeko lehen urratsa egina dago dagoeneko.

ASPALDITIK AIPATU DA hodian euskal sektorea elkartzearen beharra, hau da, Hego Euskal Herriko enpresa garrantzitsuenak –Tubos Reunidos TR Amurrión (Bizkaia), Tubacex Laudion eta Condesa Legutión (Araba), Beran eta Berriobeitin (Nafarroa)– elkartu beharra. Baina, dagoeneko, hitzetatik ekin-tzetara pasatzeko unea iritsi da. Beraz, hasteko, TR eta Condesa fusionatzeko behar diren pausoak eman dira, lehen-bizikoak bigarrena xurgatuta. Horrela, Iribecampos Uribarren familia, Condesaren jabea, TRren akziodun nagusia izango da eta haren partaidetza %36,25 eta %40,01 artekoa izango da, akzioak berrerosketo prozesua nola ixten den

arabera. Familia horrek, inola ere, ez du sozietatearen %100eko EEPA (Erosteke Eskaintza Publikoa) aterako.

Eta, oraingoz, hipotesi hori ukatzen bada ere, epe ertainera, seguru, aurreko bi enpresa horiek Tubacexekin elkartuko dira. Jakin beharra dago, Condesak Tubacexen kapitalaren %18 daukala eta akziodun nagusietako bat dela. Hemendik aurrera, TR, Condesa xurgatu ondoren, Tubacexen partaidetza garrantzitsu eta erabakigarri horren jabea da. Tubacexek ematen dituen urratsak, nahitaez, TRk onartu beharko ditu. Eta TR eta Condesa, nahiz eta hodi desberdinak fabrikatu, bien sinergien onerako elkartu badira,

are sinergia handiagoak sortuko dira Tubacex ere fusionatzen bada.

Lehen urratsa: TR eta Condesa enpresen fusioa

Irailaren 26an, TRren Ezohiko Batzar Nagusia egingo da eta, han, Condesarekin fusionatu aurreko erabakiak onartzeko asmoa dago: gaurko akzioak bitan banatzea eta kapitala 170 milioi eurotan murriztea. Eragiketa horiek egin ostean, TRk Condesa xurgatuko du. Condesak bi holding ditu, bata nazionala eta bestea atzerrikoa, Arangio eta Larreder, hurrenez hurren.

TR soldadurarik gabeko altzairuzko hodian sektorearen aitzindaria da

Tubacex, hodi herdoilgaitzen aitzindaria

Orain ezetzatzen bada ere, zalantzarik gabe, hodian enpresa euskaldunen kontzentrazioa lortzeko bigarren urratsa TR eta Tubacex elkartzea da. Eta ez da luzaro itxaron beharko horretarako. Tubacex taldea 1963an sortu zen eta soldadurarik gabeko altzairu herdoilgaitzeko hodiak ekoizten eta saltzen aritzen da. Bezero nagusiak honako hauek dira: petrolio industria, industria petrokimikoa, industria kimikoa, energia industria, mekanizazioa, automobilgintza, elikagaigintza, aeronautika, industria nuklearra eta ekipamendu ondasunak. 60tik gora herrialdetara esportatzen du eta munduko bigarren ekoizlea da. Planta nagusia Laudion dago, filialak ditu Espainian, Austrian, Frantzia eta AEBetan, eta ordezkariak Italian, Herbehereetan, Alemanian, Polonian, Txekiar Errepublikan, Hungarian, Kanadan, Txinan, Korean, eta abar.

1.771 langile ditu. 2007ko lehen sei hilabeteetan izandako azken emaitzen arabera, irabazi garbiak 30 milioi eurokoak izan dira, 2006ko aldi berean lortu ziren osoko irabazien antzekoak.

Tubacexen kapital soziala 59,84 milioi eurokoa da eta partaidetza garrantzitsuenak honako hauek dira: Bagoeta SA –Luis Maria Iribarren, Condesako kontseilari delegatuaren esku dago. Iribarren Condesaren jabea da Iribecampos familiarekin batera–, %18,9arekin; Caja de Ahorros de Navarra-ko Grupo Corporacion Empresarial, %5arekin; Atalaya Inversores SRL –Antonio Pulido Gutierrezek ordezkatzuten duena–, %5arekin; Pedro Luis Uriarte, BBVA-ko kontseilari delegatua izandakoa, %0,07arekin; Alvaro Videgain, Tubacexeko presidentea, %0,05arekin; Gerardo Arostegi, %0,03arekin; Jose

Antonio Ardanza, Eusko Jaurlaritzako lehendakari izandakoa, %0,01arekin; Alejandro Echevarria, Telecinco eta *El Correo Español*eko zuzendaritza taldeko kidea, %0,01arekin.

Sektorean, ezinbestekotzat jotzen da elkartutako taldeko kide izatea. TR eta Condesa elkartzeko arrazoiak Tubacex integratzeko berberak dira. Beraz, Abasolo TRko presidentek esan zuenez, zentzuzkoa da bere enpresa eta Condesa elkartzea, "dimentsioarengatik, desberdinak izan arren osagarriak direlako, finantza-baliabide gehiago lortzeko aukera dagoelako, bi merkataritza sare biltzen direlako eta produktuen sorta handiagotzen delako". Ez al dira berberak Tubacex hodian talde berrian integratzeko arrazoiak? Sektoreko adituek horrelaxe ikusten dute eta, horregatik, laster integratuko direla uste dute.

eta Condesak hodi soldatuak fabrikatzen ditu. Fusioaren bidez, Espainiako Estatuko altzairuzko hodian fabrikatzaile handiena eta munduko handienetakoa sortzea lortuko da. Talde berri hori 1.625 milioi euroko negozio-zifrarekin sortu da, 4.200 langile eta 18 planta industrial ditu eta 2007rako 145 milioi euroko irabazi garbiak aurreikusita dauzka. Aurtengo altzairuzko hodian produkzioa 1,4 milioi tonakoa izango da.

TR 1892an sortu zen, Tubos Forjados-en eskutik. Bost planta ditu Euskal Herrian: Amurrio eta Inausta, biak Amurrioren; Depositos Tr-Lenz SA

Lantaronen (Araba); Acecsa, Iruñean eta Productos Tubulares, Galindon (Bizkaia). Atzerrian ere beste planta batzuk ditu, adibidez, Venezuelan. Aurtengo lehen sei hilabeteetan, 45 milioi euroko irabaziak sortu zituen, 2006an epe berean baino %50 gehiago eta 400.000 tonako produkzio-ahalmena du.

Condesa, Tubacexen funtsezko bazkidea

Conducciones y Derivados SA, Condesa, Arrasaten (Gipuzkoa) sortu zen, 1954an eta altzairuzko hodiak fabrikatzen jardun zuen. 1972an, Legutio-

ra pasatu zen. Iribecampos Uribarren familia da jabe bakarra eta, halaber, plantak ditu Berrobeitin eta Zalainen (Beran). Jauzi kualitatiboa 2004an eman zuen, Arcelor enpresari Europan zituen hodiak fabrikatzeko zentroak erosi zizkionean. Hamabost planta ditu Espainian, Frantzia, Italian, Marokon, Alemanian eta Belgikan. Siderurgian aditua den edozein begiralek ezin du albo batera utzi Arabako enpresa honen jabetzako funtsezko datua, hots: Iribecampos Uribarren familia. Bagoeta holdingaren bidez, urtebete baino apur bat geroztik Tubacexen %18a dauka. ■



ARGONZ ETXEA
L A N D E T X E A

31416 URZAINKI • NAFARROA
Tel: 948475023 • info@argonzetxea.com
www.argonzetxea.com